


# Ortzadarra uretan

## Nola sortzen dute ortzadarra urak eta Eguzkiaren argiak?

### Materialak

- Plastikozko edalontzi garden bat
- Iturriko ura
- Paper zuria

*Edalontzia eguzkiak ematen dion leiho-koska batean jartzeko modua izan behar duzu.*



### Zer egin

1. Bete plastikozko edalontzia iturriko urez.
2. Jarri urez betetako edalontzia leiho-koskan, eguzki-argitan, edalontzia ertzetik pixka bat atzeratzen dela. Mugitu edalontzia, baina irauli gabe.
3. Jarri papera lurrean, eguzki-argia iristen den lekuan. Zer ikusten duzu paperean?

### Zer gertatzen da?

Ortzadarra agertu da paperean. Eguzki-argiak zuria dirudi, edo kolorega, baina kolore guztiek osatzen dute. Koloreak konbinatuta, espektroa osatzen dute, hau da, kolore-banda batzuk. Argia edalontziko uretatik igarotzean, espektroko kolore bakoitzaren argi-izpiak dagokien noranzkoan okertu dira. Izpiak paperean islatutakoan, espektroko kolore guztiak ikusi dituzu, ortzadarra balitz bezala. Koloreen ordena berdina da beti, koloreak noranzko berean okertzen direlako beti.

